Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

# BILERA-AKTA / ACTA DE REUNIÓN

## ZEHAZTASUNAK / DETALLES

| | |
|---|---|
| Gaia edo arloa / Tema o materia: **ESKOLA KIROLEKO LURRALDE KONTSEILUA** | |
| Tokia / Lugar: **Aurrez aurrekoa Juan Muguerza aretoan (KIROL ETXEA) eta On line (JI TSI)** | |
| Eguna / Día: **2023-06-07** | Ordua / Hora: **18:30-20:00** |

## PARTAIDEAK (HORIZ) / PARTICIPANTES

| Izen-abizenak / Nombres y apellidos | | Entitatea / Entidad |
|---|---|---|
| Joseba Angulo | BAI | Zumarragako Udala |
| Arkaitz Angiozar | BAI | Lezoko Udala |
| Rosa Lasagabaster | BAI (online) | Oñatiko Udala |
| Yune Amutxastegi | BAI | Zumaiako Udala |
| Alex Astigarraga | BAI (online) | Urnietako Udala |
| Esteban Arrillaga | EZ | Judo Federazioa |
| Jose Angel Rial | BAI (online) | Karate Federazioa |
| Santi Osoro | BAI | Txirrindularitza Federazioa |
| Nagore Tolosa | BAI | Eskubaloia Federazioa |
| Aitor Garro | BAI | Atletismo Federazioa |
| Gurutze Fernandez | BAI | Ikastetxea (Orixe) |
| Julen Perales | BAI (online) | Ikastetxea (Kurtzebarri (Athlon)) |
| Maialen Pescador | EZ | Ikastetxea (Orereta ikastola) |
| Patxi Goia | EZ | Ikastetxea (Anoeta ikastola) |
| Eneko Zabaleta | EZ | Ikastetxea (Azkoitiko Xabier Munibe) |
| Alicia Figueroa | EZ | GKEF |
| Eneritz Maioara | EZ | GKEF |
| María José Telleria | BAI (online) | GFA / DFG |
| Goizane Álvarez | BAI | GFA / DFG |
| Iñaki Iturrioz | BAI | GFA / DFG |
| Zuriñe Uranga | BAI | GFA / DFG |

## GAI-ZERRENDA
## ORDEN DEL DIA

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea. 2023/02/28koa | 1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior. Del 28/02/2023 |
| 2. 2023ko Lurralde Kontseiluaren kide berrien aurkezpena | 2. Presentación de los y las nuevas miembros del Consejo Territorial de 2023 |
| 3. 2023-24 ikasturteko eskola kiroleko programa onartzea. | 3. Aprobar el programa de deporte escolar del curso 2023-24. |
| 4. Kirol hastapen unitateak arautzen dituen foru aginduan egindako aldaketa (kirol eskolak) | 4. Modificación realizada en la orden foral que regula las unidades de iniciación (escuelas deportivas). |
| 5. Futboleko teknifikazio programa | 5. Programa de tecnificación de fútbol |
| 6. Kirol Ohitu emaitzak 2023 | 6. Resultados de Kirol Ohitu 2023 |
| 7. Familientzako euskarria | 7. Soporte para las familias |
| 8. MADE ikastaroa (Kirolene) | 8. Curso MADE (Kirolene) |
| 9. Haurren indarkeriaren kontrako legearen eragina eskola kirolean (LOPIVI) | 9. Incidencia de la ley contra la violencia infantil en el deporte escolar (LOPIVI) |
| 10. Norberak ekar ditzazkeenak. | 10. Las que los y las asistentes puedan traer. |

| **EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK** | **DELIBERACIONES Y ACUERDOS** |
|---|---|
| Agurra | Saludo |
| **1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.**<br>Akta aho batez onartu da. | **1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.**<br>Se aprueba el acta por unanimidad. |
| **2. 2023ko Lurralde Kontseiluaren kide berrien aurkezpena.** (ikus PPT aurkezpena). | **2. Presentación de los y las nuevos miembros del Consejo Territorial de 2023.** (Ver presentación ppt.) |
| **3. 2023-24 ikasturteko eskola kiroleko programa onartzea.**<br><br>GFAko teknikaria: aldaketa garrantzitsuenak azaltzen ditu. Horri dagokionez, honako zalantza edota ekarpen hauek sortzen dira:<br><br>1. Kirol bakarrean hasteko programetako jarduerak arautzea<br><br>GFAko teknikaria: arautu diren kirol bakarrean hasteko programak hockey, izotz-hockey, txirrindularitza eta boleibol modalitateei dagozkie. Araudi horren baitan, jarduera horiek, gainera, benjamin eta alebin kategorietan ikastetxeetako multikirolaren jardueraren osagarriak izango dira. Irizpide hori 2021-22 ikasturtean adostu zen txirrindularitza-modalitatean.<br><br>Txirrindularitza-federazioaren ordezkaria: modalitate guztiak arautu beharko lirateke eta gainerako modalitateen baldintza berak eskatu.<br>Ikasle batzuek txirrindularitza uzten dute arautu gabeko modalitateetan parte hartzeagatik.<br><br>GFAren teknikaria: helburua da modalitate guztiak arautzea, baina bakoitzak bere hausnarketa behar du. Horregatik, prozesua mailakatua izaten ari da. Helburua urtero hainbat modalitate arauztea da.<br><br>GFAko teknikaria: pandemiarekin arautzearen prozesua eten egin zen, baina berriz ekin zaio lan horri. Gainera, gogorarazi nahi da araudi horren helburua ikaskuntza-prozesuari eta ikasleen garapen integralari lehentasuna ematea dela.<br><br>Lezoko Udaleko teknikariak txirrindularitza-federazioaren ordezkaria animatu du federazioak Gipuzkoako ereduan sinesten badu, aurrera jarraitzera eta, gainerako modalitateetan egiten dutenean ez zentratzera.<br>Ereduaren emaitzak oso onak direla gaineratu du, eta GFAri eskatu dio horien komunikazio zabalagoa egin dezala, egungo ereduaren emaitzak baitira. | **3. Aprobar el programa de deporte escolar del curso 2023-24.**<br><br>Técnica de la DFG: explica las modificaciones más relevantes. Respecto a ello, surgen las siguientes dudas y/o aportaciones:<br><br>1. Regularizacion de las actividades de los Programas de iniciación monodeportiva<br><br>Técnica de la DFG: los programas monodeportivos que se han regulado son los correspondientes a las modalidades de hockey, hockey hielo, ciclismo y voleibol. En el marco de dicha regulación, estas actividades, además, serán complementarias de la actividad de Multikirola de los centros escolares en las categorías benjamin y alevín. Este criterio ya fue acordado en la modalidad de ciclismo en el curso 2021-22.<br><br>El representante de la federacion de ciclismo: deberían de regularse todas las modalidades y pedir las mismas condiciones al resto de modalidades.<br>Sienten que hay escolares que dejan el ciclismo por participar en modalidades que no están reguladas.<br><br>La técnica de la DFG: el objetivo es ir regulando todas las modalidades pero que cada una requiere su propio análisis. Es por eso que el proceso está siendo gradual. El objetivo es que cada año se vayan regulando diferentes modalidades.<br><br>El técnico de la DFG: con la pandemia se paralizó el proceso de regulación, pero se ha vuelto a retomar ese trabajo. Además, se quiere recordar que el objetivo de esta regulación es dar prioridad al proceso de aprendizaje y el desarrollo integral de los y las escolares.<br><br>El técnico del Ayuntamiento de Lezo anima al representante de la federación de ciclismo a que, si la federación cree en el modelo guipuzcoano, siga adelante y, que no se centren en lo que hacen en el resto de modalidades.<br>Añade que los resultados del modelo son muy buenos y solicita a la DFG que hagan una comunicación más amplia de estos puesto que son el resultado del modelo actual. |

| | |
|---|---|
| 2. Parte hartzeko lurralde-eremua mugatzea. | 2. Limitación del ámbito territorial de participación. |
| GFAko teknikariak: adingabeen interesak babesteko, joan-etorriak murrizteko eta ikasleek bere eremu hurbilenean parte hartzeko helburuarekin, benjamin eta alebinen kategorietan, eskola kiroleko programan arautuko modalitateetako jardueretan eta errendimenduan hasteko lehiaketetan (alebin 2. urtea) parte hartzen duten ikasleek bizi diren edo ikasketak egiten duten udalerrietako klubetan parte hartubeharko dute. Foru-organoek irizpide hori aplikatzeko aukera Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berrian jasotzen da.<br>Bizi diren udalerrian edo ikasten duten udalerrian eginb nahi den modalitatea edo diziplina garatzen duen klubarik ez badago, udalerri hurbileneko klub batean parte hartu ahal izango dute. | La técnica de la DFG: a fin de proteger los intereses de las personas menores, reducir los desplazamientos y fomentar la participación en el ámbito más cercano de los y las escolares, en categoría benjamín y alevín, los y las escolares que participen en las actividades de las modalidades reguladas en el programa de deporte escolar, así como en las competiciones de iniciación al rendimiento (2º año alevín), deberán hacerlo en los clubes de sus municipios de residencia o de escolarización. La posibilidad de que los órganos forales puedan aplicar este criterio se recoge en la nueva Ley de Actividad Física y Deporte de Euskadi.<br>En caso de que no haya un club que desarrolle la modalidad o disciplina que se quiera realizar en el municipio, podrán participar en un club del municipio más cercano. |
| Eskubaloiko federazioaren ordezkariak honako hau galdetu du: udalerri batean bi kategoria horietako bateko eskubaloi talderik ez badago eta udalerri horretako ikasleek beste udalerri bateko klubean izena ematen badute, altak eta bajak egiteko epearen barruan jatorrizko udalerrian talde bat sortuko balitz, ikasleek beren udalerriko klubean izena eman beharko lukete eta ondoko udalerriko kluba utzi? | La representante de la federación de balonmano pregunta lo siguiente: si en un municipio no existe equipo de balonmano de una de estas dos categorías y los escolares de ese municipio se apuntan en el club de otro municipio, en caso de que dentro del plazo para realizar altas y bajas, se crease un equipo en el municipio de origen, ¿los y las escolares deberían apuntarse en el club de su municipio y dejar el club del municipio más cercano? |
| GFAko teknikaria: bai, adingabearen ingurune hurbilenean parte hartzeari emango zaio lehentasuna. | El técnico de la DFG: si, se priorizará la participación en el entorno más cercano de la persona menor. |
| Txirrindularitza federazioaren ordezkariak galdetu du: muga hori benjamin eta alebinei bakarrik aplikatuko zaie? Interesgarria litzateke beste kategoria batzuetara zabaltzea. | El representante de la federación de ciclismo pregunta: ¿esta limitación va a aplicarse únicamente para benjamín y alevín? Sería interesante ampliarlo a otras categorías. |
| GFAko teknikaria: oraingoz horrela aplikatuko da. | La técnica de la DFG contesta: por ahora, se aplicará de esa manera. |
| 3. Errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzen duten modalitate kolektiboetako taldeek bete beharreko baldintzak. | 3. Condiciones que deberán cumplir los equipos de modalidades colectivas que participen en las competiciones de iniciación al rendimiento. |
| GFAko teknikaria: 2022-23 ikasturtean zehar, salaketak egon dira eta zehapen-espedienteak ireki dira lehiaketa horietan arau-hausteak egiteagatik. Horregatik, arau hausteak zuzentze aldera, hurrengo ikasturteko programan honako hau jasoko da: | La técnica de la DFG: durante el curso 2022-23 ha habido denuncias y se han abierto expedientes sancionadores por la realización de infracciones en estas competiciones. Por ese motivo, con el fin de corregir irregularidades, en el programa del curso que viene se recoge lo siguiente: |
| *Talde modalitateetan, klub bakoitzarekin, talde bakar batek parte hartu ahal izango du (salbuespenak egon daitezke arrazoi teknikoak edo hezkuntzakoak egongo balira).*<br>*2. urteko alebinak: partiduen aktak aurkeztu beharko dira dagozkien federazioek ezarritako epeetan.*<br>*Modalitate kolektiboetan, partiduak hasi aurretik,* | *En las modalidades colectivas sólo podrá participar un equipo con cada club (puede haber excepciones por razones técnicas o educativas).*<br>*Alevines de 2º año: deberán presentar las actas de los partidos en los plazos establecidos por las federaciones correspondientes.*<br>*En las modalidades colectivas, antes del inicio de los* |

| | |
|---|---|
| *taldeek Eskualdeko Kirol Bulegoek emandako eta zigilatutako triptikoa (izen-emateen zerrenda) aurkeztu beharko dute, eskola-lizentziarekin batera. Banakakoetan, berriz, eskola-lizentzia aurkeztea nahikoa izango da.*<br><br>Orixe Ikastetxearen ordezkariak adierazi du partida horietako arbitroak etxean jokatzen duten taldeen klubetako gazteak izan ohi direla, eta hori arau hausteak kontrolatzeko oztopoa izan daitekeela.<br><br>4. Programari buruzko ekarpen orokorrak:<br><br>Lezoko Udaleko ordezkaria: kezkatuta dago ikasleek bizikleta erabiltzeko duten maila baxuagatik. Arazo hori duela urte batzuetatik hona sortu da, eta gero eta ikasle gehiagok zailtasuna dute txirrindularitza-jarduera egiteko.<br><br>Txirrindularitza-federazioaren ordezkaria: ikasle askok parte hartzen dute txirrindularitzaren hastapen-jardueretan, eta urte batetik bestera parte hartzeko datuak igotzen joan dira.<br><br>Lezoko Udaleko ordezkaria: GFAri eskatu dio, mesedez, hori kontuan hartzeko eta ikastetxeetarako joan-etorri aktiboak sustatzen saiatzeko.<br><br>GFAko teknikariak adierazi du eskaera jasoko duela eta mugikortasuneko sailarekin harremanetan jarriko dela gaia jorratzeko.<br><br>5. Eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programa onartzea 2023-24 ikasturterako.<br><br>Aldaketak azaldu eta zalantzak argitu ondoren, <u>aho batez onartu da programa.</u> | *partidos, los equipos deberán presentar el tríptico (listado de inscripciones) emitido y sellado por las Oficinas Comarcales de Deportes junto con la licencia escolar. En las individuales, será suficiente la presentación de la licencia escolar.*<br><br>La representante Orixe Ikastetxea señala que los y las árbitros en estos partidos suelen ser jóvenes de los clubes de los equipos que juegan en casa, lo que puede suponer un obstáculo para controlar las irregularidades.<br><br>4. Aportaciones generales respecto al programa:<br><br>El representante del ayuntamiento de Lezo: transmite su preocupación por el bajo nivel de los y las escolares a la hora de usar la bicicleta. Dicha problemática lleva viéndola desde hace unos años y cada vez son más los y las escolares que tienen dificultad para realizar la actividad de ciclismo.<br><br>El representante de la federación de ciclismo: son muchos y muchas las escolares que participan en sus actividades de iniciación al ciclismo y que los datos de participación van aumentando de un año al otro.<br><br>El representante de Lezo solicita a la DFG que, por favor, se tenga en cuenta esto y se intente promover los desplazamientos activos a los centros escolares, entre otras.<br><br>El técnico de la DFG indica que recogerá la solicitud y se pondrá en contacto con el departamento de movilidad para tratar el tema.<br><br>5. Aprobación del Programa de actividades de actividad física y deporte en edad escolar para el curso 2023-24.<br><br>Tras explicar las modificaciones y aclarar las dudas, <u>se aprueba el programa por unanimidad.</u> |
| **4. Kirol hastapen unitateak arautzen dituen foru aginduan egindako aldaketa (kirol eskolak)**<br><br>GFAko teknikaria: errendimenduan hasteko lehiaketetako bigarren urteko alebinen kategorian ere aplikatuko da ikasleek bizi diren edo iksten duten udalerriko klubetan parte har dezaten mugatzeko irizpidea.<br>Gainera, irizpide hori ezartzen den jarduera guztietan salbuespenezko kasuak aztertu ahal izango dira.<br>Udalerrian egin nahi den modalitatea edo diziplina garatzen duen klubarik ez badago, udalerri hurbileneko klub batean parte hartu beharko dute.<br>Irizpide hori datorren ikasturtean jardueran lehen aldiz izena ematen duten ikasleei soilik aplikatuko zaie.<br><br>GFAko teknikariak gaineratu du irizpide hori 2017-18 | **4. Modificación realizada en la orden foral que regula las unidades de iniciación (escuelas deportivas).**<br><br>La técnica de la DFG: en la categoría segundo año de alevín en las competiciones de iniciación al rendimiento también se aplicará el criterio de limitar la participación a los escolares en clubes del municipio de residencia o escolarización.<br>Además, en todas las actividades que se aplique dicho criterio podrán estudiarse los casos excepcionales.<br>En caso de que no haya un club que desarrolle la modalidad o disciplina que se quiera realizar en el municipio, deberán participar en un club del municipio más cercano.<br>Dicho criterio se aplicará el próximo curso únicamente a los y las escolares que se inscriban por primera vez en la actividad. |

| | |
|---|---|
| ikasturtean ezarri zela, baina, oinarri juridikorik ez zegoenez, irizpidea kendu egin behar izan zela. Beraz, orduan ezarritako irizpidea berreskuratzea dakar horrek.<br><br>Parte-hartzaileen artean zalantza sortzen da modalitate horieetako erakundeei berri eman ote zaien irizpide berri horiei buruz.<br><br>Kiroletako zuzendariak adierazi du, oro har, dagokien federazioei jakinarazi zaiela. | El técnico de la DFG añade que este criterio estuvo establecido en el curso 2017-18 pero que, por falta de base jurídica, tuvo que eliminarse. Por tanto, esto supone recuperar el criterio establecido entonces.<br><br>Entre los y las participantes surge la duda de si se ha informado a las entidades de estas modalidades sobre estos nuevos criterios.<br><br>La Directora de Deportes señala que, en general, se ha informado a las federaciones correspondientes. |
| **5. Futboleko teknifikazio programa**<br><br>GFAko teknikaria: 2023-24 ikasturteari begira, Kirol Zerbitzuak Foru Agindu bitartez onartuko den akordio bat sinatuko du Real Sociedad Fundazioarekin (RSF), futboleko teknifikazio-programa garatzeko.<br>Programa horren baitan, lehengo urteko alebinen kategorian detekzio-jarduerak eta bigarren urteko alebinen kategoriatik aurrera teknifikazio-jarduerak garatuko dira.<br>Programako jarduerarik nabarmenenak aipatzen dira (ikus PPT aurkezpena).<br><br>Orixe ikastetxearen ordezkariak galdetu du nork hautatuko dituen teknifikatuko dituzten ikasleak.<br><br>GFAko teknikariak erantzun du irizpide teknikoen aplikazioa dela eta, beraz, teknifikazioa garatuko duen erakundeko teknikariek gauzatuko dutela, hau da, RSFk. | **5. Programa de tecnificación de fútbol**<br><br>El técnico de DFG: de cara al curso 2023-24, la DFG va a firmar un acuerdo que se aprobará por Orden Foral para el desarrollo del programa de tecnificación en fútbol con la Real Sociedad Fundazioa (RSF).<br><br>En el marco de este programa se desarrollarán actividades de detección en la categoría de primer año de alevín y de tecnificación a partir de la categoría de alevines de segundo año.<br>Se mencionan las actividades más destacadas del programa (ver presentación ppt.)<br><br>La representante de Orixe ikastetxea pregunta quien hará la selección de los y las escolares que tecnificarán.<br><br>El técnico de la DFG contesta que se trata de la aplicación de criterios técnicos y, por tanto, lo ejecutarán los y las técnicas de la entidad que desarrolle la tecnificación, es decir la RSF. |
| **6. Kirol Ohitu emaitzak 2023**<br><br>GFAko teknikariak azaldu du UPV/EHU, GFAko Kirol Zuzendaritzarekin lankidetzan, Kirol Ohitu izeneko ikerketa-proiektu bat gauzatzen ari dela. Proiektu horren helburua da Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko ikasleen jarduera fisikoko eta kirol-jarduerako ohiturak eta horien bilakaera ezagutzea. Horretarako, lagin adierazgarri batean bildutako ikastetxeen laguntzarekin, ikasleek online galdetegi bat betetzen dute. Galdetegia 2021-2022 ikasturtean baliozkotu da. Aurreikuspenen arabera, neurketa urtero egingo da, ebaluazio-datuak ezagutzeko. 2022-23 ikasturtean lehenengo neurketa egin da.<br><br>Honen harira, azterlaneko datu nabarmenenak aurkezten dira. Aurten 3000 ikasle inguruk hartu dute parte, baina, nahiz eta adierazgarritasun handia lortu den, helburua 4000 ikaslerekin neurketak egitea da (ikus PPT aurkezpena).<br><br>GFAko teknikariak gaineratu du 29 ikastetxek hartu dutela parte azterlanean.<br><br>Txirrindularitza-federazioaren ordezkariak galdetu du ea | **6. Resultados de Kirol Ohitu 2023**<br><br>La técnica de la DFG explica que la UPV/EHU, en colaboración con la Dirección de Deportes de la DFG, está realizando un proyecto de investigación denominado Kirol Ohitu, cuyo objetivo es conocer los hábitos de actividad física y deportiva (AFyD) de los escolares de Gipuzkoa de 8 a 12 años y su evolución en el tiempo. Para ello, con la ayuda de los centros escolares incluidos en una muestra representativa, los y las escolares rellenan un cuestionario online. El cuestionario ha sido validado durante el curso 2021-2022. La previsión es llevar a cabo la medición anualmente para conocer los datos de evaluación. En el curso 2022-23 se ha llevado a cabo una primera medición.<br>Al hilo de esto, se presentan los datos más relevantes del estudio. Este año han participado cerca de 3000 alumnos y alumnas, aunque se ha conseguido una gran representatividad, el objetivo es realizar mediciones con 4000 alumnos y alumnas (ver presentación PPT).<br><br>El técnico de la DFG añade que son 29 centros escolares los que están participado en el estudio.<br><br>El representante de la federación de ciclismo pregunta si |

| | |
|---|---|
| ezagutzen diren ikasleen % 5ek JFetaK praktikatu nahi ez izateko arrazoiak.<br><br>GFAko teknikaria: nesken kasuan, pertzepzio handiagoa egon da honako aldagai hauetan, praktika egiteko zailtasunak adieraztean: denborarik ez izatea, lehiaketa ez gustatzea edo onak ez direla sentitzea. Mutilen kasuan, gehienek ez dute oztoporik ikusi.<br><br>Jakinarazi da kirol-eragileei jakinarazpen bat egingo zaiela datu guztiak partekatzeko. Gainera, emaitzak Kirolen webgunean kontsulta daitezke. | se conocen las causas de que un 5% de escolares no practiquen AfyD y quieran practicarlo.<br><br>La técnica de la DFG: en el caso de las chicas, ha habido una mayor percepción en las siguientes variables a la hora de señalar las dificultades para la práctica: no tener tiempo, no gustarles la competición, o sentir que no son buenas. En el caso de los chicos, la mayoría no ha percibido obstáculos.<br>Se informa de que se va a realizar una comunicación a los agentes deportivos para compartir todos los datos. Además, los resultados pueden consultarse en la web de Kirolak. |
| **7. Familientzako euskarria**<br><br>GFAko teknikariak azaldu du GFAk familientzako bi euskarri prestatu dituela, eskola kirola zer den azaltzeko.<br>Alde batetik, Gipuzkoako Eskola Kiroleko LIBURUXKA. Bertan, eskola kirola zer den azaltzen da, haren ezaugarriak eta helburuak, eta etapa eta ibilbide desberdinetan proposatzen diren jarduerak.<br>Bestetik, Gipuzkoako Eskola Kirolaren INFOGRAFIA. Infografiak liburuxkako informazioa laburbiltzen du, eta sare sozialetan, webguneetan, posta elektronikoetan eta bestelako komunikabideetan banatzeko kartel edo euskarri gisa erabiltzeko da.<br>Bi dokumentuak eskuragarri daude webgunean.<br><br>Oro har, Kontseiluko partaideek oso praktikotzat eta erabilgarritzat jotzen dituzte euskarriak, eta lana eskertzen dute. Uste dute beharrezkoa zela, eta familiek eta kirol eragileek oso ondo hartuko dutela.<br><br>Liburuxkaren bukaerarako QRen artean Gipuzkoako Eskola Kirolaren datuetarako sarbidea gehitzea proposatu dute.<br><br>GFAk Kontseiluko kideen lankidetza eskatu du, landutako materialen hedapen zabala lortzeko. | **7. Soporte para las familias**<br><br>El técnico de la DFG expone que desde la DFG se han preparado dos Soportes para las Familias en los que se explica qué es el Deporte Escolar.<br>Por un lado, el FOLLETO de Deporte Escolar de Gipuzkoa. En él ese explica qué es el Deporte Escolar, sus características y objetivos, y las actividades que se proponen en las diferentes etapas e itinerarios.<br>Por otro lado, la INFOGRAFÍA de Deporte Escolar de Gipuzkoa. La infografía resume la información del folleto y es para utilizarla como cartel o soporte para la distribución en redes sociales, webs, correos electrónicos y otros medios de comunicación.<br><br>Ambos documentos están disponibles en la página web.<br><br>En general, los y las participantes en el Consejo ven muy práctico y útil los soportes y agradecen el trabajo. Consideran que era algo necesario y que las familias y agentes del deporte lo acogerán muy bien.<br><br>Proponen añadir entre los QR del final del folleto un acceso a los datos de Eskola Kirola de Gipuzkoa.<br><br>La DFG solicita la colaboraciópn de los y las miembros del Consejo para lograr una amplia difusión de los materiales elaborados. |
| **8. MADE ikastaroa (Kirolene)**<br><br>GFAko teknikariak azaldu du zer den eta nori bideratuta dagoen MADE iasktaroa. Gainera, prestakuntzen egungo egoera azaldu du, eta Gipuzkoako hainbat udalerritan urte amaierara arte 18 MADE ikastaro egitea aurreikusi dela adierazi du (ikus PPT aurkezpena).<br><br>Lezoko Udaleko ordezkariak ikastaroan interesa azaldu du eta lehenengo ikastaroa bere eskualdean (Oarsoaldea) garatu dela adierazi du.<br><br>Zumarragako ordezkariak galdetu du ea MADE ikastaroan HNIBBILOkoa sartzen den.<br><br>GFAko teknikariak berretsi du MADE ikastaroan HNIBBILOren sentsibilizaziorako prestakuntza-bloke bat lanzten dela. | **8. Curso MADE (Kirolene)**<br><br>El técnico de DFG explica que es MADE y a quien está dirigido. Además, explica la situación actual de las formaciones y que está previsto realizar 18 cursos MADE por diferentes municipios de Gipuzkoa hasta final de año (ver presentación ppt).<br><br>El representante del ayuntamiento de Lezo muestra interés en el curso y señala que el primero de ellos se ha desarrollado en su comarca (Oarsoaldea).<br><br>El representante de Zumarraga pregunta si en el curso MADE se incluye el de LOPIVI.<br><br>El técnico de DFG confirma que en el curso MADE se trabaja un bloque sobre la formación de sensibilización de LOPIVI. |

| | |
|---|---|
| Orixe ikastolako ordezkaria: ikastaroa doakoa da?<br><br>GFAko teknikaria: prezioa 82 €-koa da. Lurraldeko eragileen egindako eskaerak kontuan hartuta, idatzi bat prestatu da Eusko Jaurlaritzan aurkezteko, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren izenean, ikastaroaren doakotasuna eskatzeko.<br>Testua irakurri ondoren, <u>aho batez onartu da haren aurkezpena.</u> | La representante de Orixe ikastola: ¿el curso es gratuito?<br><br>El técnico de la DFG: el precio es un precio público de 82€. Ante las solicitudes de distintos agentes del territorio, se ha elaborado un escrito para presentar ante el GV en nombre del Consejo Territorial de Deporte Escolar con el fin de solicitar la gratuidad del curso.<br>Tras leer el texto, <u>se aprueba por unanimidad la presentación del mismo</u>. |
| **9. Haurren indarkeriaren kontrako legearen eragina eskola kirolean.**<br><br>GFAko teknikariak indarrean dagoen HNIBBILO eskakizunak azaltzen ditu. HNIBBILOk irailaren 1etik aurrera 3 baldintza betetzera behartuko ditu kirol-agenteak (ikus ppt).<br><br>GFAko teknikariak *Zeuk esan, Zure taldekoak gara* eta *Zain* zerbitzuak eta programak azaldu ditu. Informazio guztia gure webgunean dago<br><br>Orixe ikastetxearen ordezkaria: nork izendatuko du ikastetxeetako ordezkaria? Eta zer protokolo aplikatu beharko da?<br><br>GFAko teknikariek azaldu dutenez, Eskola Kirola ikastetxeko órgano gorenaren urteko planean jasota badago, bizikidetza-plana ezarriko da. Eskola Kirola enpresa pribatuen edo guraso-elkarteen bidez garatzen bada, Hezkuntza Sailarekin kontrastatzen ari da, baina ez dago guztiz argi.<br><br>Lezoko Udalaren eta Zumarragako Udalaren ordezkariek galdetu dute ea nor arduratuko den kudeaketa horretaz udaletan.<br><br>GFAko teknikariak erantzun du ulertzen duela, antolatzaileak udalak badira, udalek berek izendatuko dutela pertsona delegatua, haiek zuzenean kudeatzen badute jarduera. Enpresak azpikontratatzen diren kasuari dagokionez, kontsulta egingo da eta ahalik eta lasterren jakinaraziko da.<br><br>Orixe ikastetxearen ordezkaria: Zer gertatuko litzateke ikastetxe batek baldintzak betetzen ez baditu? Eta nola kontrolatuko da?<br><br>GFAko teknikaria: Adingabeekin jarduerak egin ahal izateko HNIBBILOak ezinbesteko baldintzak direla jasotzen du. Beraz, hori beteko ez balitz, jarduera ezingo litzake garatu.<br><br>GFAko teknikariak, bigarren galderari dagokionez, erantzun du GFAk kontrola eramango duela eta | **9. Impacto de la ley contra la violencia infantil en el deporte escolar.**<br><br>La técnica de la DFG explica las exigencias de la ley vigente LOPIVI. La LOPIVI obligará a los agentes deportivos a cumplir 3 requisitos a partir del 1 de septiembre (ver ppt).<br><br>El técnico de la DFG explica los servicios y programas *Zeuk esan, Zure taldekoak gara y Zain*. Toda la información está en nuestra página web<br><br>La representante de Orixe ikastetxea: ¿quién nombrará a la persona delegada en los centros escolares? y ¿qué protocolo deberá aplicarse?<br><br>Los técnicos de la DFG explican que en caso de que Eskola Kirola esté recogido en el plan anual del órgano superior del centro, se establecerá como parte del plan de convivencia. En el caso de que Eskola Kirola se desarrolle a través de empresas privadas o de asociaciones de madres y padres, se está contrastando con el Departamento de Educación, pero no está del todo claro.<br><br>El representante del ayuntamiento de Lezo y de Zumarraga, preguntan quién se encargará de dicha gestión en los ayuntamientos.<br><br>El técnico de la DFG responde que entiende que en caso de que sean los organizadores los ayuntamientos, serán los propios ayuntamientos los que nombren a la persona delegada en caso de que gestionen ellos directamente la actividad. Respecto al caso en el que se subcontraten empresas se realizará la consulta y se informará lo antes posible.<br><br>La representante de Orixe ikastetxea: ¿Qué pasaría si un centro escolar no cumple con los requisitos? Y ¿cómo se va a controlar?<br><br>El técnico de la DFG: la LOPIVI recoge que son requisitos indispensables para poder realizar actividades con personas menores. Por lo que el no cumplir con ello supondría no poder desarrollar la actividad.<br><br>La técnica de la DFG, respecto a la segunda pregunta, |

| | |
|---|---|
| erakundeek, Aldundiko aplikazioetan, adierazi beharko dutela baldintza guztiak betetzen dituztela, baina erregistroa Eusko Jaurlaritzaren aurrean egin behar izango dela. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak plataforma bat garatuko du, eta, bertan, erakundeei informazio desberdina aurkezteko eskatuko die, jarraipena egin ahal izateko.<br>Urnietako ordezkariak ikastaroen bideoen kalitatea txarra dela adierazi du, eta horri buruzko kexak jaso ditu.<br>Eskubaloiko Federazioaren ordezkaria: euskararen kalitatea bideoetan asko hobetu daiteke. | contesta que la DFG llevará un control y las entidades deberán declarar que cumplen todos los requisitos en las aplicaciones de la Diputación, pero el registro debe realizarse ante el Gobierno Vasco. Por otra parte, el GV desarrollará una plataforma en la que exigirá a las entidades presentar diferente información a fin de llevar un seguimiento.<br>El representante de Urnieta comenta que la calidad de los vídeos de la formación es mala, y ha recibido quejas al respecto.<br>La representante de la federación de balonmano: la calidad del euskara en los vídeos se puede mejorar. |
| **10. Norberak ekar ditzazkeenak.** | **10. Las que los y las asistentes puedan traer.** |
| GFAko teknikariak, kirol-eragileek eta, bereziki, Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko (EKLK) ordezkariek egindako ahalegina eskertuz, GFAk EHUrekin batera antolatzen duen *"Kirol-diplomaziaren erronkak eta aukerak XXI. Mendean"* udako ikastarora joateko aukera eskaini du. GFA arduratuko da EKLKko kideen matrikularen kostuaz. Horez gain, aukera bera ematen zaio Gipuzkoako federazio bakoitzeko ordezkari bati.<br><br>Interesik izanez gero, jarri harremanetan kirolekin@gipuzkoa.eus<br><br>Eta beste honenbestez, bilerari amaiera eman dio GFAko kiroletako zerbitzuburuak 19:50tan. | El técnico de la DFG: Agradeciendo el esfuerzo que hacen los agentes del deporte y en especial los y las representantes del Consejo Territorial de Deporte Escolar (CTDE), se ofrece la posibilidad de acudir al curso de verano de la UPV/EHU: *"Retos y oportunidades de la diplomacia del deporte en el siglo XXI"* que organiza la DFG junto con la UPV. La DFG se hará cargo del coste de la matrícula de los asistentes del CTDE. Además, se ofrece la misma posibilidad a un representante de cada federación guipuzcoana.<br>En caso de tener interés, ponerse en contacto con kirolak@gipuzkoa.eus<br><br>Finalmente, el jefe del Servicio de Deportes de la DFG ha clausurado la reunión a las 19:50 horas. |

**Zuriñe Uranga**
**Kirol Teknikaria**